

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1676

AGINDUA, 2016ko martxoaren 31koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua, zeinaren bitartez finkatzen baitira, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustiategiei dagokienez, laborantzen marjina gordinak, Nekazaritzako Lan-Unitateak (NELU) zehazteko modulu objektiboak eta ustiategien gastu finkoen koefizienteak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Ustiategien Erregistro Orokorrari buruzko irailaren 27ko 203/2011 Dekretuaren 14.2 artikulua dioenez, «lan-unitatearen errenta kalkulatzeko, aldi-aldi eta dimentsioa, kokapena, joera tekniko-ekonomikoa eta ustiategiaren ekoizpen-sistema aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzan nekazaritza-arloan eskumena duen saileko pertsona titularraren aginduaren bidez, marjina gordinak, ustiategiari dagozkion nekazaritzako lan-unitateak zehazteko modulu objektiboak eta ustiategi horren gastu finkoen koefizienteak zehaztuko dira».

Lehenago, arlo horretako arauak betez –antzekoak baitziren–, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2001eko uztailaren 18ko Aginduak eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko ekainaren 25eko Aginduak finkatu zituzten, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustiategiei dagokienez, laborantzen marjina gordinak, Nekazaritzako Lan-Unitateak (NELU) zehazteko modulu objektiboak eta ustiategien gastu finkoen koefizienteak. Geroztik, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2013ko azaroaren Agindua-
ren bitartez eguneratu egin ziren.

Zenbait laboreri buruzko estatistika-lanak eginda, atzeman da ezen beharrezkoa dela 2013ko azaroaren 29ko Aginduan jasotako adierazle batzuk eguneratzea. Hortaz, agindu honen bitartez, NELUak zehazteko moduluak eta marjina-gordinak finkatzen dira, 2016. urteko datuei dagokienez, eta ordeztu egiten da 2013ko azaroaren 29ko aipatu agindua.

Dekretu hau egiteko, aholkua eskatu zaie Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiei eta nekazaritza arloko lanbide-elkarteei. Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Xedea.

Agindu honen bidez finkatu nahi dira, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustiategiei dagokienez, laborantzen marjina gordinak, Nekazaritzako Lan-Unitateak (NELU) zehazteko modulu objektiboak eta ustiategien gastu finkoen koefizienteak. Horretarako, 2016ko datuak hartuko dira oinarritzat, hala xedatuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Ustiategien Erregistro Orokorrari buruzko irailaren 27ko 203/2011 Dekretuaren 14.2 artikuluan.

Bigarrena.– Marjina gordinak.

Laborantzei dagozkien marjina gordinak agindu honetako I. eranskinean jasotako irizpide teknikoaren arabera kalkulatu dira.

Hirugarrena.– NELUak eta gastu finkoen koefizienteak zehazteko moduluak.

Nekazaritza-ustiategi bateko Nekazaritzako Lan-Unitateak zehazteko moduluak agindu hone-tako II. eranskinean jasotakoak izango dira. Era berean, II. eranskinaren barruan sartu dira gastu finkoen koefizienteak.

Laugarrena.– Ondorioak.

I. eranskinean jasotako marjina gordinak kalkulatzeko irizpide teknikoek eta agindu honetako II. eranskinean jasotako Nekazaritzako Lan-Unitateak eta gastu finkoen koefizienteak zehazteko moduluak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituzte ondorioak; Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2001eko uztailaren 18ko Agindukoak ordeztuko dituzte, eta berririk ezarri ezean indarrean jarraituko dute.

Bosgarrena.– Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze-ko errekurtsoa aurkez dakioke Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, betiere agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoaren 31.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

2016ko apirilaren 21a, osteguna

I. ERANSKINA

MARJINA GORDINAK

MOTA	LANBIDE-ARLOA	ESPEZIEA	M.G.E.	NELU/ Ha.
Larre iraunkorrak	Larre iraunkorrak	Larreak, belardi naturalak edo bazkalekuak	142,14	0,0125
Larre iraunkorrak	Larre iraunkorrak	Mendiko bazkalekuak	52,38	0,0080

NLGIS «Zuhaixka-larre» edo «zuhaizti-larre» erabilerako larreetan eta mendiko larreetan, NLGIS larreen onargarritasun-ehunekoa bakarrik kontatuko da.

Belarkarak	Bihiak dituzten laboreak	Garia	478,12	0,025
Belarkarak	Bihiak dituzten zerealak	Garagarra	450,53	0,025
Belarkarak	Bihiak dituzten laboreak	Oloa, artatxikia eta artatxiki iletua	446,44	0,025
Belarkarak	Bihiak dituzten laboreak	Artoa eta ureztatutako basartoa	441,08	0,035
Belarkarak	Bihiak dituzten laboreak	Artoa eta lehorreko basartoa	252,60	0,030
Belarkarak	Bihiak dituzten laboreak	Zekalea	368,79	0,025
Belarkarak	Bihiak dituzten zerealak	Labore ekologikoa	552,72	0,040
Belarkarak	Bihiak dituzten zerealak	Beste zereal batzuk	368,79	0,035

Belarkarak	Bihiak dituen leguminosoak	Ureztapen estentsiboko babarrun bihiduna	2.444,27	0,085
Belarkarak	Bihiak dituen leguminosoak	Lehorreko estentsiboko babarrun bihiduna	2.444,27	0,080
Belarkarak	Bihiak dituen leguminosoak	Babarrun bihiduna (artoarekiko elkarte)	6.500,00	0,500
Belarkarak	Bihiak dituen leguminosoak	Intentsiboko babarrun bihiduna (sarea)	8.000,65	0,750
Belarkarak	Bihiak dituen leguminosoak	Babak eta baba txikiak (estentsiboa)	343,52	0,025
Belarkarak	Bihiak dituzten leguminosoak	Beste batzuk (garbantzuak, dilistak eta abar)	343,52	0,080
Belarkarak	Proteaginoso bihidunak	Ilar proteaginosoa (estentsiboa)	196,82	0,025

Belarkarak	Gizakiek jateko tuberkuluak	Hazitarako patata	3.799,40	0,167
Belarkarak	Gizakiek jateko tuberkuluak	Jateko patata	3.491,54	0,100
Belarkarak	Gizakiek jateko tuberkuluak	Jateko patata (txikizkako salmenta)	7.210,61	0,125

Belarkarak	Labore industrialak	Azukre-erremolatxa (ureztapeneko)	2.270,89	0,067
Belarkarak	Labore industrialak	Azukre-erremolatxa (lehorreko)	1.200,94	0,053
Belarkarak	Labore industrialak	Ekilorea	324,02	0,025
Belarkarak	Labore industrialak	Tabakoa	5.086,61	0,750
Belarkarak	Labore industrialak	Koltza	297,48	0,025
Belarkarak	Labore industrialak	Lo-belarra	573,74	0,025
Belarkarak	Labore industrialak	Landare aromatikoak, sendatzekoak eta espeziak	1.762,47	0,200

2016ko apirilaren 21a, osteguna

Belarkarak	Loreak eta apaingarriak (aire zabala)	Ebakitako lorea	86.952,50	2,400
Belarkarak	Loreak eta apaingarriak (aire zabala)	Sasoiko landarea, kanpoko lorontzia	34.781,00	2,400
Belarkarak	Loreak eta apaingarriak (aire zabala)	Gladiolo itxurako landarea	86.952,50	2,400
Belarkarak	Loreak eta apaingarriak (berotegikoak)	Sasoiko landarea, kanpoko lorontzia	91.153,64	7,000
Belarkarak	Loreak eta apaingarriak (berotegikoak)	Ebakitako lorea	198.049,52	7,000

Belarkarak	Bazka-laboreak	Bazka-artoa	1.046,50	0,060
Belarkarak	Bazka-laboreak	Zalkea-oloa	561,93	0,040
Belarkarak	Bazka-laboreak	Astorkia	422,05	0,040
Belarkarak	Bazka-laboreak	Bazka-lekadunak	562,00	0,040
Belarkarak	Bazka-laboreak	Arbia- eta bazka-erremolatxa	536,92	0,125
Belarkarak	Bazka-laboreak	Urteko beste belar-bazka berde batzuk	617,20	0,040
Belarkarak	Bazka-laboreak	Alpapa (lehorrekoa)	1.160,10	0,060
Belarkarak	Bazka-laboreak	Alpapa (ureztapenekoak)	1.879,17	0,060
Belarkarak	Bazka-laboreak	Belardi artifiziala (polifitak)	610,68	0,040
Belarkarak	Bazka-laboreak	Urteanizetako beste belar-bazka batzuk	583,56	0,040

Agindu honen ondorioetarako, hiru taldetan banatuta daude, beren marjina gordin estandarra aurkitzeko: berotegikoak, lur landukoak eta baratzeak.

Berotegiko edo aterpe baxuko laboreak alde batera utzirik, «baratzeko labore»-tzat joko dira honako baldintza hauek betetzen dituzten azalerak:

– Hazkuntzaren faseren bat ez badago mekanizaturik, eta bilketa sekula ere ez.

– Ustiategiaren baratzeko laboreetarako azalera osoa 0,5 ha-koa edo handiagoa bada, 2 labore batera izango ditu gutxienez, eta bietako bat ere ez da 0,20 ha baino txikiagoa izango, ez eta labore-errotaziorik egingo ere.

Aurreko baldintzak betetzen ez baditu, lur landuko laboretzat joko da.

Belarkarak	Berotegiko barazkiak	Laborea zehaztu gabe (baratzeko laboreak)	84.085,97	5,00
Belarkarak	Berotegiko barazkiak	Letxuga	85.915,12	5,00
Belarkarak	Berotegiko barazkiak	Zerba	34.635,00	5,00
Belarkarak	Berotegiko barazkiak	Eskarola	69.485,52	5,00
Belarkarak	Berotegiko barazkiak	Lekak	78.692,59	5,00

2016ko apirilaren 21a, osteguna

Belarkarak	Berotegiko barazkiak	Piperra	99.312,61	5,00
Belarkarak	Berotegiko barazkiak	Tomatea	80.833,07	5,00
Belarkarak	Berotegiko barazkiak	Besteren bat	84.085,97	5,00
Belarkarak	Barazkiak (baratzeko laboreak)	Laborea zehaztu gabe (baratzeko laboreak)	22.825,01	2,00
Belarkarak	Barazkiak (baratzeko laboreak)	Letxuga eta eskarola	15.055,31	2,00
Belarkarak	Barazkiak (baratzeko laboreak)	Eskarola	19.324,42	2,00
Belarkarak	Barazkiak (baratzeko laboreak)	Aza, azalorea eta bruzelasa	12.501,27	2,00
Belarkarak	Barazkiak (baratzeko laboreak)	Tomatea	21.905,19	2,00
Belarkarak	Barazkiak (baratzeko laboreak)	Gernikako piperra	39.701,78	2,00
Belarkarak	Barazkiak (baratzeko laboreak)	Pipermina	39.825,00	2,00
Belarkarak	Barazkiak (baratzeko laboreak)	Lekak	15.629,58	2,00
Belarkarak	Barazkiak (baratzeko laboreak)	Zerba	15.112,31	2,00
Belarkarak	Barazkiak (baratzeko laboreak)	Azenarioa	5.581,39	2,00
Belarkarak	Barazkiak (baratzeko laboreak)	Porruak	17.909,49	2,00
Belarkarak	Barazkiak (baratzeko laboreak)	Baratxuria	17.200,15	2,00
Belarkarak	Barazkiak (baratzeko laboreak)	Aza	9.028,56	2,00
Belarkarak	Barazkiak (baratzeko laboreak)	Kuiatxoak	14.901,16	2,00
Belarkarak	Barazkiak (baratzeko laboreak)	Kuia	11.849,09	2,00
Belarkarak	Barazkiak (baratzeko laboreak)	Tipula eta tipuleta	19.361,28	2,00
Belarkarak	Barazkiak (baratzeko laboreak)	Ziazerba	8.869,71	2,00
Belarkarak	Barazkiak (baratzeko laboreak)	Ilarra	18.611,65	2,00
Belarkarak	Barazkiak (baratzeko laboreak)	Besteren bat	22.825,01	2,00

2016ko apirilaren 21a, osteguna

Belarkarak	Labore estentsiboko barazkiak (lur landukoak)	Laborea zehaztu gabe (lur landukoak)	2.515,27	0,20
Belarkarak	Labore estentsiboko barazkiak (lur landukoak)	Letxuga	3.794,86	0,20
Belarkarak	Labore estentsiboko barazkiak (lur landukoak)	Eskarola (iv. gama)	4.163,49	0,20
Belarkarak	Labore estentsiboko barazkiak (lur landukoak)	Eskarola (sistema hitzartua)	4.163,49	0,20
Belarkarak	Labore estentsiboko barazkiak (lur landukoak)	Zerba	4.412,34	0,20
Belarkarak	Labore estentsiboko barazkiak (lur landukoak)	Lekak	1.285,66	0,10
Belarkarak	Labore estentsiboko barazkiak (lur landukoak)	Azenarioa	5.581,39	0,10
Belarkarak	Labore estentsiboko barazkiak (lur landukoak)	Azenarioa (hazi-ekoizpena)	2.547,74	0,20
Belarkarak	Labore estentsiboko barazkiak (lur landukoak)	Brokolia	3.388,24	0,20
Belarkarak	Labore estentsiboko barazkiak (lur landukoak)	Ziazerba	711,63	0,20
Belarkarak	Labore estentsiboko barazkiak (lur landukoak)	Ilar berdeoa	1.086,88	0,10
Belarkarak	Labore estentsiboko barazkiak (lur landukoak)	Besteren bat	2.515,27	0,20

Zurezko laboreak	Fruta-arbolak	Mahiko sagarra, ureztapeneko eta modu estentsibokoa	12.037,21	0,25
Zurezko laboreak	Fruta-arbolak	Mahaiko sagar estentsiboa	2.397,00	0,20
Zurezko laboreak	Fruta-arbolak	Sagardotarako sagarrondo intentsiboklonala	2.397,00	0,20
Zurezko laboreak	Fruta-arbolak	Sagardotarako sagarrondo intentsiboklonala (botilan saltzekoa)	4.794,00	0,30
Zurezko laboreak	Fruta-arbolak	Sagardotarako sagarrondo estentsibofrankoa	1.486,00	0,15
Zurezko laboreak	Fruta-arbolak	Sagardotarako sagarrondo intentsibofrankoa (botilan saltzekoa)	2.972,00	0,22
Zurezko laboreak	Fruta-arbolak	Udarea ureztapenean modu estentsibokoa	8.731,81	0,25
Zurezko laboreak	Fruta-arbolak	Madari estentsiboa	2.397,00	0,20

2016ko apirilaren 21a, osteguna

Zurezko laboreak	Fruta-arbolak	Intxaurrondoa	4.374,60	0,15
Zurezko laboreak	Fruta-arbolak	Hurritza	1.990,96	0,15
Zurezko laboreak	Fruta-arbolak	Aktinidia (kiwia)	9.533,00	0,40
Zurezko laboreak	Fruta-arbolak	Gereziondoa	5.074,32	0,25
Zurezko laboreak	Fruta-arbolak	Beste	3.625,55	0,20

Zurezko laboreak	Mahastigintza.	Mahastia (txakolina) – mahats-salmenta (Araba)	7.368,95	0,25
Zurezko laboreak	Mahastigintza.	Mahastia (txakolina) – mahats-salmenta (Bizkaia / Gipuzkoa)	7.368,95	0,40
Zurezko laboreak	Mahastigintza.	Mahastia (txakolina) – ardo botilen salmenta - Araba	22.756,59	0,35
Zurezko laboreak	Mahastigintza.	Mahastia (txakolina) – ardo botilen salmenta (Bizkaia eta Gipuzkoa)	22.756,59	0,50
Zurezko laboreak	Mahastigintza.	Mahastia (Arabako Errioxa) – mahats-salmenta	4.068,34	0,17
Zurezko laboreak	Mahastigintza.	Mahastia (Arabako Errioxa) – ontziratu gabeko ardoaren salmenta	4.588,32	0,22
Zurezko laboreak	Mahastigintza.	Mahastia (Arabako Errioxa) – ardo botilen salmenta	6.716,00	0,30
Zurezko laboreak	Mahastigintza.	Mahastia (Arabako Errioxa) – ardo onduaren salmenta	14.411,00	0,32

Zurezko laboreak	Olibadia	Olibadia	822,09	0,28
------------------	----------	----------	--------	------

Zurezko laboreak	Beste zurezko batzuk	Ahabia	39.000,00	1,15
Zurezko laboreak	Beste zurezko batzuk	Mugurdiondoa	34.000,00	2,50

Mintegiak	Berotegiko baratzeko mintegiak	Laborea zehaztu gabe (baratzeko espezieak)	79.253,41	8,00
Mintegiak	Fruta-arbolen mintegiak	Laborea zehaztu gabe (fruta-arbolen espezieak)	48.703,48	3,20
Mintegiak	Basoetako mintegiak	Erroa hutsik duten landareak	48.703,48	1,60
Mintegiak	Basoetako mintegiak	Edukiontzia	114.927,00	3,20

Basogintzakoak	Sastraka erako espezieak	Sastraka erako espezieak	0,00	0,000
Basogintzakoak	Basoko espezieak	Koniferoak	190,89	0,016
Basogintzakoak	Basoko espezieak	Hostozabalak	86,76	0,012
Basogintzakoak	Basoko espezieak	Mistoak (koniferoak – hostozabalak)	137,12	0,014
Basogintzakoak	Basoko espezieak	Gabonetarako izeiak	1.318,00	0,016

2016ko apirilaren 21a, osteguna

Basogintzakoak	Basoko espezieak	Douglas izeiak	423,00	0,016
Basogintzakoak	Basoko espezieak	Lawson altzifrea	272,00	0,016
Basogintzakoak	Basoko espezieak	Makala	322,00	0,012
Basogintzakoak	Basoko espezieak	Eukalipto	255,00	0,012
Basogintzakoak	Basoko espezieak	Fagus sylvatica	95,00	0,012
Basogintzakoak	Basoko espezieak	Insignis pinua	212,00	0,016
Basogintzakoak	Basoko espezieak	Larizio pinua	172,00	0,016
Basogintzakoak	Basoko espezieak	Pinaster pinua	115,00	0,016
Basogintzakoak	Basoko espezieak	Basa-pinua	129,00	0,016
Basogintzakoak	Basoko espezieak	Bestelako koniferoak	154,00	0,016
Basogintzakoak	Basoko espezieak	Kerzineak	58,00	0,012
Basogintzakoak	Basoko espezieak	Haritz amerikarra	195,00	0,012
Basogintzakoak	Basoko espezieak	Bestelako hostozabalak	61,00	0,012

Bestelakoak	Onddoak eta antzekoak	Barrengorriak	309.500,00	8,000
Bestelakoak	Onddoak eta antzekoak	Boilurra	1.559,00	0,200

Laborerik gabekoak	Familiarik gabekoak	Kentzea (lugorria)	0,00	0,008
Laborerik gabekoak	Familiarik gabekoak	Lugorria	0,00	0,008

2016ko apirilaren 21a, osteguna

AZIENDA

ESPEZIEA	MOTA	M.G.E.	NELU/ Burua:
Hegaztiak	Haragitarako oiloak (broiler)	3,38	0,00012
Hegaztiak	Haragitarako oiloa (baserriko oiloa)	4,30	0,00025
Hegaztiak	Arrautzetarako oiloak	8,77	0,00015
Hegaztiak	Landako oiloak	10,50	0,00017
Hegaztiak	Ahateak / antzara	1,22	0,00020
Hegaztiak	Foie-grass egiteko ahatea (paparoa betetzeko fasea)	36,24	0,00220
Hegaztiak	Foie-grass egiteko antzara	109,44	0,00550
Hegaztiak	Faisaiak	2,78	0,00020
Hegaztiak	Eper gorria	3,02	0,00012
Hegaztiak	Ostrukak	706,91	0,05000
Hegaztiak	Besteren bat	1,20	0,00012

Behiak	Behi ume-eginak, esnetarakoak	789,27	0,0325
Behiak	Behi ume-eginak, haragitarakoak	54,94	0,0150
Behiak	Ar hazitarakoak	0,00	0,0100
Behiak	Arrak, 24 hilabetetik gorakoak, gizontzeko	91,50	0,0100
Behiak	Emeak, 24 hilabetetik gorakoak, umerik gabeak, esnetarako direnak	155,46	0,0125
Behiak	Emeak, 24 hilabetetik gorakoak, umerik gabeak, haragitarako direnak	43,96	0,0100
Behiak	Arrak, 12-24 hilabetekoak, arrazetakoak, esnetarako direnak	70,39	0,0125
Behiak	Arrak, 12-24 hilabetekoak, arrazetakoak, haragitarako direnak	91,50	0,0100
Behiak	Emeak, 12-24 hilabetekoak, arrazetakoak, esnetarako direnak	113,57	0,0125
Behiak	Emeak, 12-24 hilabetekoak, arrazetakoak, haragitarako direnak	31,06	0,0100
Behiak	Arrak, 12 hilabete baino gutxiagokoak, esnetarako direnak	13,08	0,0125
Behiak	Arrak, 12 hilabete baino gutxiagokoak, arrazetakoak, haragitarako direnak	41,93	0,0100
Behiak	Emeak, 12 hilabete baino gutxiagokoak, esnetarako direnak	94,58	0,0125
Behiak	Emeak, 12 hilabete baino gutxiagokoak, haragitarako direnak	18,07	0,0100

Ahuntz-azienda	Ahuntz amak, esna saltzeko (gehienbat)	42,50	0,0045
Ahuntz-azienda	Ahutz amak, gazta egiteko	80,00	0,0100
Ahuntz-azienda	Ahuntz amak (haragitarakoak)	25,00	0,0017
Ahuntz-azienda	Aumak	31,32	0,0010
Ahuntz-azienda	Ahuntz estali gabeak eta antxumeak	23,52	0,0017
Ahuntz-azienda	Akerrak	0,00	0,0017

2016ko apirilaren 21a, osteguna

Ardiak	Ardi amak, esnea saltzeko (gehienbat)	32,45	0,0025
Ardiak	Ardi amak, gazta egitekoak	64,91	0,0055
Ardiak	Ardi amak (haragitarako)	23,45	0,0017
Ardiak	Arkumeak	22,12	0,0010
Ardiak	Ardi estali gabeak eta ahariak	22,99	0,0017
Ardiak	Ahariak	0,00	0,0017

Txerriak	Txerramak	43,18	0,01200
Txerriak	Txerrikumeak dituzten txerri amak	32,00	0,01200
Txerriak	Harakaletarako txerri amak	75,00	0,01200
Txerriak	20 kilotik gorako txerrikumeak Bizi-pisua	3,25	0,00043
Txerriak	20tik 50 kg-ra bitarteko gizentzeko txerriak. Bizi-pisua	43,40	0,00170
Txerriak	50 kg-tik gorako gizentzeko txerriak Bizi-pisua	45,86	0,00170
Txerriak	Umerik gabeko txerri-emeak	19,39	0,00970
Txerriak	50 kg-tik gorako arrak eta apoteak	0,00	0,00970
Txerriak	Txerri-azienda estentsiboa (gizentzeko txerriak)	110,00	0,00420

Untxiak	Untxi amak	62,00	0,00450
---------	------------	-------	---------

Ekidoak	Moxalak (haragitarako)	51,00	0,0050
Ekidoak	Moxalak (gainean ibiltzeko)	400,00	0,0420
Ekidoak	Zaldi helduak (haragitarako)	60,54	0,0075
Ekidoak	Zaldi helduak (gainean ibiltzeko)	275,00	0,0275

Erlauntzak	Erlauntzak	67,20	0,00320
------------	------------	-------	---------

Oreinak	Oreinak	110,00	0,01100
---------	---------	--------	---------

Bisoiak	Bisoiak	70	0,0014
---------	---------	----	--------

Beste batzuk	Barraskiloak (sare/tuneleko azalera hektareatan, guztira)	24.000,00	2,50
--------------	---	-----------	------

2016ko apirilaren 21a, osteguna

NEKAZARITZA-TURISMOA

MOTA	KONTZEPTUA	M.G.E.	NELU/ Lanpostua
Nekazaritza-turismoa	Nekazaritza-turismoak (ostatu-plazak)	800,00	0,05000

TRANSFORMAZIO, EKOIZPEN EKOLOGIKO ETA SALMENTA ZUZENA DITUZTEN
USTIATEGIEI APLIKATZEKO KOEFIZIENTEAK

KONTZEPTUA	KOEFIZIENTEAK	
	M.G.E.	NELU
Ekoizpen-unitateak transformazioarekin		
– Nekazaritzako produktuak	2,00	1,25
– Abeltzaintzako produktuak	2,00	1,50
Produkzio-unitateak azoketako salmentarekin		
– Nekazaritzako produktuak	1,085	1,05
– Abeltzaintzako produktuak	1,085	1,05
Produkzio ekologikodun unitateak		
– Nekazaritzako produktuak	1,25	1,10
– Abeltzaintzako produktuak	1,25	1,10
Ekoizpen-unitateak transformazioarekin		
– Nekazaritzako produktuak	2,50	1,375
– Abeltzaintzako produktuak	2,50	1,650
Produkzio-unitateak transformazioarekin eta azoketako salmentarekin		
– Nekazaritzako produktuak	2,17	1,3125
– Abeltzaintzako produktuak	2,17	1,575
Produkzio-unitateak era ekologikoarekin eta azoketako salmentarekin		
– Nekazaritzako produktuak	1,35625	1,155
– Abeltzaintzako produktuak	1,35625	1,155
Produkzio-unitateak era ekologikoarekin, transformazioarekin eta azoketako salmentarekin		
– Nekazaritzako produktuak	2,7125	1,44375
– Abeltzaintzako produktuak	2,7125	1,7325

OHARRAK

- Transformazioari buruzkoak:
 - Ustiatégian transformatzeko produktuak ekoizten dituzten unitate guztiei aplikatzeko koefizientea. Produktu transformatuaren marjina desagregatu bat dagoenean ez da aplikatuko (ardiak, gaztak egiteko; mahastiak, ardoa saltzeko; sagarrondoak, salmenta botilatan, etab.)
 - Produzioen erregistroan edo baimen sanitarioarekin instalazio propioak (edo komunitarioak) edukitzea beharrezkoa da; betiere, aipatu transformazioari lotutako produkzio-unitate guztientzako gaitasun askirekin. Hirugarrenen instalaziotan egiten den transformazioa kanpo uzten da.
 - Kontuan izateko beste alde batzuk:
 - Guztizko produkzioetik beherako transformazio-gaitasuneko instalazioetan, transformatu daitezkeen unitateei aplikatuko zaie transformazio-koefizientea.
 - Instalazio komunitarioetan produktuen transformazioa ustiatégiko langileek egin beharko dute.
 - Hirugarren batek prestatutako haragizko produktuei ez zaie aplikatuko transformazio-koefiziente hau.
 - Aziendaren kanalen zatikatzea edo piezakatzea ez da kontsideratzen transformazio.
- Azoketako salmentei buruzkoak:
 - Atal honetan aipatu produktuak sortzen dituzten produkzio-unitate guztiei aplikatuko zaie koefizientea.
 - Azoka jakin baterako salmenta-egiaztapena edo -baimena eduki behar da (edo azoketan salmentak egiteko betekizunak konplitzea).
 - Epigrafe honetan sartzen dira kontsumo-taldeak edo antzekoak.
- Produzio ekologikoari buruzkoak:
 - Produzioa ekologikoan ustiatégietako produkzio-unitate guztiei aplikatzen zaie koefizientea.
 - Konbertsioan diren unitateei ere aplikatzen zaizkie koefizienteak.
- Edonola ere, ustiatégien pertsona titularrei informazio kontularitzakoa edo fiskala eskatu ahal izango die Administrazioak; eta haiek datu kontularitzakoekin edo fiskalekin egiaztatu ahal izango dute enpresaren irudi ekonomiko-finantzario zehatza.

II. ERANSKINA

Nelu-ak eta marjina garbia zehazteko moduluak

1.– Ustiategiaren Guztirako Marjina Gordina (GMG) kalkulaztea.

MG kalkulatzeko, ustiategiko laborantza bakoitzeko hektareak eta une jakin batean ustiategian dagoen azienda-mota bakoitzeko buruak marjina gordin estandarraz biderkatu behar dira. Urtebete baino gutxiago irauten duten azientetan, plazak zenbatzen dira, esaterako, unxi amen kasuan. Urtebete baino lehenago saltzen diren horietan ere hala jokatu behar da; une jakin batean ustiategian daudenak kontatuko dira. Ustiategiko labore guztiak sartuko dira, bazkalekuak, larreak eta bazka-laboreak barne, nahiz eta ustiategiko azientak jateko izan.

$$\sum (\text{MGE} \times \text{ha kopurua}) + \sum (\text{MGE} \times \text{buru kopurua}) = \text{Guztirako Marjina Gordina}$$

Marjina Gordinari buruzko kalkulu horren bide alternatibo gisa, nekazaritza-ustiategiak kontabilitateko txosten bat aurkeztu ahal izango du non sarrerak, diru-laguntzak (guztiz desagregatuak) eta gastu aldagarriak: haziak, fitosanitarioak, ongarriak, pentsuak eta bazka eskuratuak, albatariak eta sendagaiak, intseminazio- edo estalketa-kostuak, eta azientarentzako oheak. Kontratutako esku-lana eta esku-lan propia ez daude sartuta, eta makinaren eta kanpoko lanen kontratazioa ere ez.

GARRANTZI EKONOMIKOAREN ARABERA MARJINA GORDINA ETA NELUAK LORTZEA

Marjina Gordina aurkitutakoan, eskala honetan ikusiko da zer lerrotan dagoen ustiategia. Esaterako, aurkitutako Marjina Gordina 12.800 eurokoa bada, laugarren lerroan egongo da (11.500etik 16.499ra bitartean), eta Margina Garbia honako hau izango da:

$$4.025 + 0,45 \times (12.800 - 11.500) = 4.025 + 0,45 \times 1.300 = 4.610$$

HEMENDIK	HONA	Marjina garbia
0	2.499	0,25 x Marjina gordin
2.500	6.499	625 + 0,35 x (M.G. - 2.500)
6.500	11.499	2.025 + 0,40 x (M.G. - 6.500)
11.500	16.499	4.025 + 0,45 x (M.G. - 11.500)
16.500	Hemendik aurrera	6.275 + 0,50 x (M.G. - 16.500)

Aurreko kalkulua egindakoan, azken ekitaldiko diru-laguntzak ere gehituko dira (lehenengo zutabeko zuzeneko ordainketak bakarrik), behi ume-hazlearen prima izan ezik. Gehiagorik bada, beherago datorren moduan egingo da kalkulua.

NELUak lortzeko, Marjina Gordinarekin bezala, laborantza eta azienda bakoitza dagokion koefizienteaz biderkatuko da, eta hasierako NELUak lortuko dira, eta gero, Marjina Garbiaren kalkuluan bezala, ustiategiari dagokion lerroaren arabera, behar den formula erabiliko da, bukaerako NELUak lortzeko.

Adibidea: kalkulutako hasierako NELUak: 4,71. -> «3,01etik 7ra bitarteko» lerroa dagokio:

$$\text{Bukaerako NELUak} = 2,4 + 0,60 \times (4,71 - 3) = 3,426 \text{ NELU.}$$

HEMENDIK	HONA	Bukaerako NELUak
0	1,00	1 x hasierako NELUak
1,01	2,00	1,0 + 0,8 x (hasierako NELUak - 1)
2,01	3,00	1,8 + 0,6 x (hasierako NELUak - 2)
3,01	7,00	2,4 + 0,4 x (hasierako NELUak - 3)
7,01	Hemendik aurrera	4 + 0,30 x (hasierako NELUak - 7)

Oharra: Batzordearen 2015eko abuztuaren 13ko (EB) 2015/1391 ERREGELAMENDUaz aldatu egin zen Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EE) 1200/2009 Erregelamendua. Bada, erregelamenduko haren II. eranskinarekin bat etorritik, definitu egiten da (ULU) Urteko Lan Unitatea, lanaldi osoari dagokion lan gisa, hau da, lan egiten emandako ordu guztiak zati lanaldi osoan urteko lanean egindako orduen batzaz besteko orduak, urteko 1.800 ordu onartzen dira (225 lanegunetan, eguneko 8 ordu). 1200/2009 Erregelamendua: nekazaritza-produkzioarako metodoei buruzko inkesten eta nekazaritza-ustiategien egiturari buruzko inkesten gainekoa.

BESTE KONTSIDERAZIO BATZUK

Edozein laborantza edo azienda berriren MGE kalkulatzeko, honako datu hauek behar dira:

- Nekazariak aztergai den garaian jasotako etekinak eta prezioak, laborantzen kasuan. Aziendaren kasuan, buruko jasotako batez besteko prezioak, hasierako balioa (jaioteguneko balioa), heriotza-tasa, ekoizpen-zikloaren batez besteko iraupena.
- Diru-sarrerak kalkulatu ondoren, dagozkien zuzeneko kostuak kentzen dira, hala nola haziak, fitosanitarioak, ongariak, aseguruak, laborantzearako berokuntza, eta pentsuak, belar-bazkak, albaitariak, eta aziendarentzako oheak-eta.

Edonola ere, ustiategien pertsona titularrei informazio kontularitzakoa edo fiskala eskatu ahal izango die Administrazioak; eta haiek datu kontularitzakoekin edo fiskalekin egiaztatu ahal izango dute enpresaren irudi ekonomiko-finantzario zehatza.

SEKTOREAN SARTZEN DIREN BERRIEI APLIKATU BEHARREKO DIRU-LAGUNTZEN MAILA

Sektorean sartzen diren berriei dagokienez, kobratutako diru-laguntzei buruzko daturik ez dagoenez, jaso beharreko diru-laguntzei buruzko honako kalkulu hauek aplikatuko dira, behar diren eskubideak erosiz gero:

Oinarrizko ordainketa(*)	Azalera (abenduarien 19ko 1076/2014 Errege Dekretuaren, hau da, Nekazaritza Politika Erkidearen oinarrizko ordainketa-erregimenerako eskubideak esleitzeari buruzkoaren arabera) x kontsideratutako eskualdearen zenbateko batzaz bestekoa.
Greening	Oinarrizko ordainketa % 50 (*)
Nekazaritza-jardueran hasten diren gazteentzako osagarria.	Oinarrizko ordainketa % 50 (*) Oinarrizko ordainketa % 25 (*)
Jaiotze-ustiategi berean gizendutako txalak	35 €/abere hautagarriko
Jaiotze-ustiategiaz beste baten gizendutako txalak	15 €/abere hautagarriko

Esnetarako behi-azienda	130 €/abere hautagarriko (Mendialdeko lehen 75 behiak) 120 €/abere hautagarriko (beste alde batzuetako lehen 75 behiak) 70 €/abere hautagarriko (Mendialdeko gainontzeko behiak) 60 €/abere hautagarriko (beste alde batzuetako behiak)
Ardi-azienda	10 €/abere hautagarriko
Ahuntz-azienda	8 €/abere hautagarriko
Proteaginosoak eta leguminosoak	50 €/ha
Olio-landareak	40 €/ha
Oskoldun fruituak	35 €/ha
Kalitatezko lekaleak	65 €/ha
Azukre-erremolatxa	500 €/ha

Oharra: Aberea hautatu ahal izatea, honako honetan oinarriturik ezartzen da: 2015. urtetik aurrera nekazaritzari eta abeltzaintzari zuzeneko ordainketak eta bestelako laguntza-araubideak aplikatzeari eta zuzeneko ordainketak eta nekazaritza-garapenerako ordainketak kudeatu eta kontrolatzeari buruzko abenduaren 19ko 1075/2014 Errege Dekretuan.